

IRRATIAREN FUNTZIOAK



- Funtzio Informatiboa

Irratiaren jaiotzarekin, ikusi dugun bezala, informazioa hedatzeko lehenengo bide eraginkorra aurkitu zen. Irratiaren hastapenetan, **Marconik** 1898an, Dover hiritik hurbil zegoen toki bat eta itsasertzetik 19 kilometrotara ainguraturik zen East Goodwin itsasuntzia lotzea erdietsi zuen. Hiru hamarkada geroago, 1938an, **Orson Welles** gazteak alienigenen inbasioa zegoela sinistarazi zion estatubatuar entzuleriari.

Lehenengo irrati saio hauek gutxinaka irratia **komunikazio tresna** bat lez kontutan hartzeko balio izan zuten, eta ikuskizun hauek bigarren plano batera igaroko dira, norabide bakarreko komunikazio honek eskaintzen zuen botereaz ohartu zirenean. Orduan, irratia komunikazio masiborako hedabide zaharrenetarikoa, pilitikarako arma ezinbestekoa bilakatuko da denborarekin.

Seinale igorle eta hartzaileak hobetuz joango dira, baita igortzeko distantziak luzatuz ere... Horrela **I Mundu Gerra** garairako irratia bere **heldutasunera** ailegatuko da eta gerran parte hartuko zuten blokeek irratia erabiliko dute euren aldeko propaganda politikoa egiteko, historian lehenengoz. Naziek bereziki, hedabide honetaz baliatuko ziren beren interesen arabera mezu propagandistikoak hedatzeko.

Horrela, irratia edozein alderdientzat geroz eta garrantzitsuagoa bihurtzen hasiko da noiz eta telebista jaio zen arte. Azken honek urrezko garaian zegoen irratitari bere lekua kenduko zion erabat. Baina hala ere, estrategia berdina jorratuko da hedabide batean edo bestean: informazioa interes politiko- ekonomikoen arabera plazaratuko da eta beraz, boterea bilakatuko

da geroz eta gehiago egungo **Informazioaren Gizartea** sortu den arte. Gizarte mota honetan, hedabideak edo mass-mediak, informazio izenaz ezaguna dugun ezagutza-ereduaren saltzaile dira, egungo gizartean.

Informazioa, egun, saldu eta eros daitekeen **produktua** da, demandaren arabera funtzionatzen duena. Merkatu-produktu moduan, informazioa, merkatu-harremanen arabera ekoizten da: gehiago behar denean, gehiago; gutxiago behar denean, gutxiago; ikusita zertarako behar den, horretarako. Enpresa informatiboen, instituzio burokratikoaren eta merkatu-eskarien menpekota da, beraz, informazioa; publikatzen dena bai behintzat.

Enuntziatu informatiboen autoreek, normalean, beste batzuek hautatutako materialen artean egiten dute euren hautaketa, beste batzuek hautatutakotik abiatzen dira euren testu-produkzioan, besteek esana konpaktatzen dute. Konpaktatze-lan horietan, ideologia profesionalek, zeremonia-hazturek eta gertaerei erantsitako balioek zamatatu egiten dute albistearen transmisioa. Modu honetan, **hedabideetako albistea, kontsumo masiborako** prestatu eta lau haizeetara hedatzen dena, alde batetik, inguruan gertatzen denaz informaturik egoteko narratiba gisa hartu daiteke. Albisteeak, ikuspuntu horretatik begiratuta, munduaren errepresentazio-lana hartzen dute eurengan, **albisteeak errealitatearen ordezkatzailleak** dira, egitateak eta gertaerak gogoratu gura litzuketanak.

Beste batetik, baina, **interbentzio politikorako tresna** izan daitezke albisteeak. Albisteeak, ikuspuntu horretatik begiraturik, kontzientzia politikoa piz lezakete, prozesu politikoak legezta litzakete, edo instituzioei zilegitasuna aitortu. Albisteen eragin sozialak kontestu historiko jakinak sortzen dituela esan da sarri. Lengoaiaren bidez edukiak azaltzen ditu, bai eta munduaren ezagutza, nola indibiduala hala kolektiboa, permititzen eta ahalbidetzen ere.